

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bittor Gorrotxategi Zangitu

*Bergara,
Gipuzkoa
(1948)*

Aurkibidea



Biografia



Osintxuko Izarreberri baserrian jaioa, giro erabat euskaldunean. Auzoko eskolan ibili zen 11 urtera bitarte eta gero Elementalean egin zituen ikasketak. Euskaltzalea izanik, kultur mugimendua gertutik segitzen zuen gaztetatik, eta 1974an kultur hamabostaldi bat antolatzen ibili zen, beste hainbat herritarrekin batera: Urrats Berriak izeneko hamabostaldia. Jose Ramon Gantxegi lagunarekin elkarrizketatu genuen, orduko kontuak jakiteko. Bere anaia [Jose Luis Gorrotxategi](#) ere elkarrizketatuta dago, bertsolaria.

Zintak

BER-367

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-02-15
- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Osintxun euskaraz; ama eta osabak Arabara gaztelaniaz ikastera

- **Erref:** BER-367/016
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:20:57. **Bukatu:** 00:23:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Osintxun jaio zen, baserri txiki batean. Aitak eta aitonak lantegian lan egiten zuten, baina pare bat behi eta ortua izaten zituzten. Ama ortuko gauzak saltzera joaten zen. Bi anaietatik gazteena da. Etxean dena euskaraz. Bere ama eta haren anaiak Araba aldean gaztelania ikasten ibiliak ziren. Osintxun ez zegoen etorkinik eta ez zen erabiltzen gaztelaniarik, administrazioan salbu.

2. Tutik ere ez zekien gaztelaniaz, eskolan hasi zenean

- **Erref:** BER-367/017
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:23:47. **Bukatu:** 00:26:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Berak ez zekien tutik ere gaztelaniaz eskolan hasi zenean. Maisua erdalduna zen, baina jatorra. Ez zuen zigor askorik jasotzen, isil samarrik egoten zelako, baina debekatuta zegoen euskaraz egitea.

3. Beraiek hasi ziren euskal giroko ekitaldiak antolatzen Osintxun

- **Erref:** BER-367/018
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:26:02. **Bukatu:** 00:27:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Osintxu baserri-giroko auzoa zen, nahiz eta ordurako industria asko sartuta egon. Apustuak egiten ziren, baina kultura-arloko kontu gutxi. Ez zen erraza, dena debekatuta zegoelako eta gauza guztietarako onespena behar zelako. `Basarri´ eta `Uztapide´ bertsolariak egoten ziren jaietan. Beraiek hasi ziren euskal kulturarekin lotutako kontuak jartzen.

4. Euskal kulturaren loraldia; Ez dok Amairu Bergaran

- **Erref:** BER-367/019
- **Iraupena:** 0:04:41. **Hasi:** 00:27:55. **Bukatu:** 00:32:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Beraiek Eskola Profesionalean zebiltzala, izugarrizko kultur-mugimendua edo loraldia egon zen Euskadi osoan: kantaldiak, bertso-saioak, errezitaldiak... Politikoki ere mugimendu handia zegoen: alderdi desberdin ugari. Inguruetan zeuden ekitaldi guztietara joaten ziren. Ez dok Amairu taldearen lehen kantaldia Novedades aretoan. Letek egin zituen aurkezle lanak; bere burua nola aurkeztu zuen. Arrate eta Loiola irratiek euskal musika zabaltzeko izan zuten garrantzia.

5. Elementalean euskaraz egiten zutenei "caseros"

- **Erref:** BER-367/020
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:32:36. **Bukatu:** 00:33:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Elementalean (Eskola Profesionalean) zebiltzanean, "caseros" esaten zieten. Antzuolakoek eta auzoetakoek bakarrik egiten zuten euskaraz. Guraso eta aiton-amona euskaldunak zituzten bergarrek ere gaztelaniaz egiten zuten.

6. Euskararen eta euskal kulturaren aldeko konpromisoa

- **Erref:** BER-367/021
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:33:52. **Bukatu:** 00:36:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Bergara auzo txikia zen eta Bergarara joaten ziren, lagunak ere asko hangoak ziren eta. Euskal kulturaren inguruko kontuak antolatzen hasi zirenak gai horren inguruko ezinegonak batu zituen. Orduan konprometitua eta arriskutsua zen, edozer gauzogatik atxilotzen zituzten eta. Beste askok nahiago zuten erosotasunean bizi. 1974an Urrats berriak hamabostaldia antolatu zuten jende askoren inplikazioarekin.

7. "24 ordu euskaraz" ekimena I

- **Erref:** BER-367/022
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:36:37. **Bukatu:** 00:38:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Loiolako herri-irratia antolatutako "24 ordu euskaraz" ekimena Anoetan. Herri askotako jendea ibili zen bilerak egiten, jendea animatzen...

8. Egin egunkariaren sorreran laguntzen

- **Erref:** BER-367/023
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:38:04. **Bukatu:** 00:39:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Egin egunkariaren sorreran laguntzen ibili ziren. Dirua batzeko zer egin zuten; 2000 pezetako txartelak. Bergaran ia hiru miloi pezeta batu ziren. Orduan ia ez zegoen euskarazko prentsarik. Egin ere ez zen dena euskaraz. Herritik sortu zen.

9. "24 ordu euskaraz" ekimena II

- **Erref:** BER-367/025
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:39:37. **Bukatu:** 00:40:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

"24 ordu euskaraz" ekimena Loiola herri-irratia antolatutakoa izan zen. Jose Ramon Beloki izan zen arduradun nagusia. Bergara inguruko arduraduna Joseba Azkarraga izan zen. Joxe Mari Iriondo ere tartean ibili zen.

10. Euskararen eta euskal kulturaren alde, alderdi politikoetatik at

- **Erref:** BER-367/027
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:40:59. **Bukatu:** 00:42:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Jendea bere kabuz ibiltzen zen herri-ekimenetan edo kultur-ekintzetan laguntzen. Egin egunkariaren sorreran ere hala izan zen, adibidez. Bergaran denek ezagutzen zuten elkar eta bazekiten nor egon zitekeen laguntzeko prest. Beraiek ez zuten izan loturarik alderdi politikoekin.

11. Ez dok Amairu taldearen arrasto garrantzitsua

- **Erref:** BER-367/028
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:42:47. **Bukatu:** 00:44:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Ez dok Amairu taldea. Desadostasun politikoengatik desegin ote zen. Arrasto

handia utzi zuten, idoloak ziren. Bertako partaideetako batzuk aipatzen dituzte: Lertxundi, Lete, Lurdes Iriondo, Antton Valverde... Katalanekin harreman handia zuten eta elkarrekin egiten zituzten jaiadiak; Lluís Llach-ek, esaterako, jende asko mugitzen zuen.

12. Ernai antzerki taldearen arrakasta

- **Erref:** BER-367/029
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:44:17. **Bukatu:** 00:46:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Ernai antzerki taldeak arrakasta handia izan zuen. Ezin izaten ziren gai politikoetan sartu. Zenbait antzezlan aipatzen dituzte: "Txalupa jaberik ez", "Ordu eroslea"... Inguruko herri guztietara joaten ziren. Antzezle onak izateak baino euskaraz izateak zuen arrakasta. Txomin Amasorrain eta Juste Amenabar ziren arduradun nagusiak. Antzezle gehienak beraiek baino zaharxeagoak.

13. Moises Azpiazu dantzaria

- **Erref:** BER-367/031
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:48:14. **Bukatu:** 00:49:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Dantza edo trikiti txapelketak antolatzeak ez zuen hainbesteko arazorik sortzen, folklorea zirenez, Erregimenak oztoporik jarri gabe onartzen zituelako. Moises Azpiazu dantzari osintxuarra. Bergaran dantza-eskola jarri zuen.

14. Mendizaletasuna abertzaletasunarekin lotuta

- **Erref:** BER-367/032
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:49:25. **Bukatu:** 00:52:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Mendizaletasunak lotura handia izan zuen euskal kulturaren loraldian; mendizaletasuna abertzaletasunarekin lotzen zen. Mendian ez zen guardia zibilik egoten eta askatasun gehiago zuten han, hitz egiteko edo edozertarako. Pol-pol mendizale elkarteak. Serafin Esnaola, oso euskaltzalea, herriarekin lotura.

15. UNEDen sorrera; lehenengo Magisteritza eta euskara tituluak

- **Erref:** BER-367/034
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:52:22. **Bukatu:** 00:55:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Bergaran UNED martxan hasi zenean, mugimendu handia sortu zen Bergaran. Ordura arte inork ez zuen euskarazko titulurik. Lehenengo Magisteritza eta euskara tituluak. Hasierako ikastoletan lanean jardun zuten titulurik gabeko andereñoek, Magisteritza titulua lortzeko aukera izan zuten. Bittorrek UNEDen atera zuen EGA titulua. Juan Martin Elexpuru, Jon Lopategi eta Jerardo Elortza izan zituen irakasle.

16. Zumeta margolariaren proposamena Bergarako kultur-hamabostaldian

- **Erref:** BER-367/035
- **Iraupena:** 0:05:52. **Hasi:** 00:55:34. **Bukatu:** 01:01:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Zenbait herritan kultur-asteak antolatzen hasiak zirela eta Bergaran zerbait handiagoa antolatzea pentsatu zuten: "Urrats berriak" hamabostaldia. Joxean Artze eta beste zenbait lagunekin batu ziren, aholkuak jasotzeko. Zumeta margolariaren ideia: umeek moztaroen marrazkiak egin eta gero benetako irudiak sortu. Sekulako lana izan zen. Margola tindategikoek arropak tindatu zizkieten. Izugarrizko ikuskizuna izan zen. Plazan erre ziren gero moztar guztiak.

17. Bergarako "Urrats berriak" kultur-hamabostaldia

- **Erref:** BER-367/036
- **Iraupena:** 0:07:18. **Hasi:** 01:01:26. **Bukatu:** 01:08:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Lanbideak » Artistak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

"Urrats berriak" kultur-hamabostaldia. Egunero zegoen zerbait. Garaiko artista

onenen lanekin erakusketa egin zen udaletxean. Liburu eta disko azoka egon zen egunetan. Bertso-jaialdia. Umeentzat pailazoak eta txotxongiloak, abesbatzak... Plazaren erdian txondorra egin zen eta egunetan egon zen erretzen. Artisauak ere egon ziren: kaiku egileak, uztarri egileak, otarra egileak... Frontoian egin zen bertso-saioan sekula egon den jende gehien egongo zela dio Bittorrek. Halako ekitaldiak "Eusko gudariak" abestuz amaitzen ziren. Hitzaldiak; zeri buruz eta nork eman zituen. Fernando Larruquet-en Amalur euskarazko lehen filma Iralan. Kontzertua: Pi de la Serra, Arze anaiak eta Laboa. Pi de la Serrak ezin izan zuelako abestu sortu zen iskanbila. Gero ikastola azpian zegoen alargunen elkartean abestu zuen.

18. Bergarako kultur hamabostaldia: jende askoren inplikazioa eta parte-hartzea

- **Erref:** BER-367/037
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:08:44. **Bukatu:** 01:10:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

"Urrats berriak" kultur-hamabostaldia. Dena antolatzeko dirua behar zen eta hainbat talderen partaidetza bultzatu zuten. Jendearen parte-hartzea oso handia izan zen. Luis Lascurain zen alkatea garai hartan.

19. 1965eko Bergarako Aberri Eguna

- **Erref:** BER-367/044
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:16:14. **Bukatu:** 01:18:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

1965eko Bergarako Aberri Egunean egon zen Jose Ramon. Trenez joan zen Osintxutik. Goiko estazioan jaitsi eta ea zertara zihoan galdetu zioten. Inguruko mendi guztietan jendea ikusten zen, asko oinez joan ziren eta. Trenez joaten zirenei, jaitsi orduko nortasun-agiriak kentzen zizkieten. Monzon hegazkinean pasa zenean, jendea txaloka. Gasteizko Aberri egunean ere egon zen 18 urterekin.

20. Frankismoko azken urteetako giro nahasia

- **Erref:** BER-367/045
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:18:08. **Bukatu:** 01:20:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1977an ikurrina legeztatzea. "Urrats berriak" kultur-hamabostaldia artean

Franco bizi zela antolatu zuten. Bittorrek kontatzen du poster batzuen bila Usurbilera joan behar zirela eta manifestazioagatik auto barruan harrapatuta geratu zirela. Guardia zibilak tiroka. Orduko bizipenak eta pasatako beldurra. Monzon hil zeneko kontuak. "Txibato"en beldur izaten ziren, edozeinek denuntzia jar zezakeen eta.

21. Xabier Leteren eskutitza, kultur-hamabostaldiagatik zoriontzen

- **Erref:** BER-367/048
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:23:15. **Bukatu:** 01:24:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Xabier Letek 1975 hasieran bidali zion eskutitza irakurtzen du Jose Ramonek. Bergaran antolatu zuten kultur-hamabostaldiagatik zoriontzeko idatzi zion.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com